

5/2014 FORU ARAUA, ekainaren 11koa, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergari buruzkoa (BAO Ekainaren 17koa)

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2014ko ekainaren 11ko Osoko Bilkuran onartu dutela 5/2014 FORU ARAUA, ekainaren 11koa, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergari buruzkoa, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

HITZAURREA

2014ko apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bidez, Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoak Ekonomia Ituna aldatzeko 2014ko urtarrilaren 16an hartu zuen erabakia onetsi da.

Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoak hartutako erabaki horren edukiak -Batzar Nagusiek 2014ko martxoaren 26ko 1/2014 Foru Arauaren bidez berretsi dute erabaki hori, eta aipatutako legeak aldarrikatu du- berekin ekarri du tributu berriak (orain arte gure tributu-sisteman ez zeudenak) ituntzea, zegoeneko itunduta zeuden beste batzuen ituntze-baldintzak aldatzeaz gainera.

Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko Zerga da ituntze berriko tributu horietako bat, eta, indarrean dagoen Ekonomia Ituneko 34. artikuluan xedatutakoarekin bat, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko. Beraz, beharrezkoa da xedapen hau ematea, batetik, zergapetze mota berri honi buruzko arauketa gure antolamenduan sartzeko eta, bestetik, arauketa horretan Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak jasotzeko.

Europar Batasunaren zerga-, energia- eta ingurumen-politika eraentzen duten oinarrizko printzipioekin bat egiteko, 2013ko abenduaren 29ko 16/2013 Legea onartu zen, zeinaren bidez ingurumen-fiskalitatearen arloan zenbait neurri ezarri ziren eta beste tributu- eta finantza-neurri batzuk onartu ziren. Izan ere, besteak beste, mekanismo batzuk sartu nahi ziren ingurumeneko kanpo-efektu jakin batzuk zuzentzeko, hala nola berotegi-efektuko gasen emisioak eragindakoak. Horretarako, bada, berotegi-efektua duten gas fluoratuen kontsumoari buruzko zerga bat ezartzen da.

Gas fluoratuen kontsumoaren gaineko zeharkako tributu bat da, zeinak fase bakarrean kargatzen duen gas horiek kontsumorako prest egotea eta, horretarako, atmosfera berotzeko potentziala kontuan hartzen duen. Bestalde, kenkari bat ezarri da zergan, haren xede diren produktuak suntsitu direla egiaztatzen den kasuetarako; izan ere, halako aukerak arautzeak teknologia ekologikoen garapena bultzatzen du.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betetzeko, memoria ekonomikoari buruzko txostena eta genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru arau honekin batera.

1. artikulua. Izaera.

Berotegi Efektuko Gas Fluordunen gaineko Zerga zeharkako tributu bat da, Espainiako lurraldean gas horiek erabiltzea kargatzen duena.

2. artikulua. Eremu objektiboa.

Zerga honen ondorioetarako, «berotegi-efektuko gas fluordun»tzat hartuko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 517/2014 (EB) Erregelamenduak,

berotegi-efektuko gas fluordunei buruzkoak eta 842/2006 (EE) Erregelamendua indargabetzekoak, I. eranskinean jasotako hidrofluorokarburoak (HFC), perfluorokarburoak (PFC) eta sufre hexafluoruroa (SF6), baita haiek osagai dituzten nahasteak ere.

3. artikulua. Aplikatu beharreko arauak.

1. Ekonomia Ituneko 34.artikuluak xedatutakoaren esparruan, foru arau honekin eta berau garatzen duten xedapenekin bat galdutako da zerga.
2. Foru arau honetan xedatutakoa gorabehera, indarrean jarraituko du Espainiako barne-ordenamenduaren parte bihurtu diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatutakoak.

4. artikulua. Zergaren ordainarazpena eta ikuskapena.

Bat. Zergaren ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiak egingo du arau hauen arabera:

1. Zergaren eremu objektiboa osatzen duten gasen fabrikazioaren kasuan, jarduera garatzen den establezimenduak Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatuta badaude.
2. Salmenta edo entregen kasuan, bai eta zerga arautzen duen araudiaren arabera biltegizain gisa baimendutako zergadunek egindako gas-kontsumoen kasuan ere, jarduera garatzen den establezimenduak Bizkaian kokatuta badaude.
3. Zergaren eremu objektiboa osatzen duten gasen Europar Batasunaren barruko eskurapenaren kasuan, Europar Batasunaren barruko eskurapena egiten duenaren egoitza fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan badago, salbu eta biltegizain gisa baimenduta dagoen zergaduna bada; kasu horretan aurreko bigarren araua aplikatuko da. Ezarri gabeko zergadun batek egiten dituen Europar Batasunaren barruko eskurapenen kasuan, ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, baldin eta haren ordezkariaren egoitza fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan badago.
4. Zergaren xede diren gasen edukitze irregularra gertatzen den kasuetan, gasok Bizkaiko Lurralde Historikoan badaude edukitze irregularra gertatu dela egiaztatzen den unean.

Bi. Ikuskapena Bizkaiko Foru Aldundiaren organoek egingo dute, zerga ordainarazteko eskumena Aldundiak badu Bat apartatuaren arabera, zerga-administrazioen arteko lankidetzara gorabehera.

5. artikulua. Definizioak.

1. Zerga honen ondorioetarako, honela ulertuko dira kontzeptu hauek:
 - a) “Europar Batasunaren barruko eskurapena”: eskualdatzaileak, eskuratzzaileak berak edo hirugarren batek (aurreko bietako edozeinen izenean eta kontura) Europar Batasuneko beste estatu batetik zergaren aplikazio-lurraldera (Kanariar Uharteak, Ceuta eta Melilla izan ezik) igorri edo garraiatu eta eskuratzzailearentzat diren zergapeko gasen gaineko baliatze-ahala lortzea.

Oro bat, Europar Batasunaren barruko eskurapenei berdinetsitako eragiketatzat joko da jabeak zergapeko gasak zergaren aplikazio-lurraldean (Kanariar Uharteak, Ceuta eta Melilla ez) jasotzea, gasok jabeak Europar Batasuneko beste estatu batetik bidali baditu.
 - b) “Gas fluordunen biltegizaina”: Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 34.3 artikuluan aipatzen den pertsona fisiko edo juridikoa edo entitatea, zergaren xede diren gasak eskuratzeko kudeaketa-bulegoak baimendua, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan, 8. artikulua 4. apartatua aurreikusitako araubidea aplikatuz.

- c) “Suntsipena”: berotegi-efektuko gas fluorduna berotegi-efektuko gas fluorduna ez den substantzia egonkor batean edo gehiagotan transformatzeko edo modu iraunkorrean deskonposatzeko prozesua.
- d) “Ekipo militarra”: helburu militarretarako diren armak, munizioak eta gerrako materiala, estatu kideen oinarrizko segurtasun-interesen babeserako beharrezkoak direnak.
- e) “Fabrikazioa”: zerga honek kargatzen dituen produktuak lortzea.

Ez da fabrikaziotzat hartuko berotegi-efektuko gas fluordunen birziklatze- eta birsorkuntza- eragiketak egitea. Nahasteak lortzea ere ez da fabrikaziotzat hartuko.

- f) “Inportazioa”: honako eragiketa hauek hartuko dira halakotzat:
 1. Zergaren aplikazio-lurraldean (Ceuta eta Melilla izan ezik) sartzea Europar Batasuneko aduana-lurraldearen barruan ez dauden lurraldeetatik datozen zergapeko produktuak, baldin eta horren ondorioz produktuen zirkulazio askea sortzen bada 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 201. artikulua arabera (952/2013 Erregelamendua, 2013ko urriaren 9koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Europar Batasuneko Aduana Kodea ezartzen duena).
 2. Kanariar Uharteetan zergapeko produktuak sartzea, Europar Batasuneko aduana-lurraldearen barruan dauden baina zergaren aplikazio-lurraldeko parte ez diren lurraldeetatik datozenak, baldin eta sarrera horren ondorioz produktuen zirkulazio askea sortu bada eta zergapeko produktuak Europar Batasuneko aduana-lurraldearen barruan ez dauden lurraldeetatik badatoz.
 3. Ceutan eta Melillan sartzea zergaren aplikazio-lurraldeko parte ez diren lurraldeetatik datozen zergapeko produktuak, baldin eta sarrera horren ondorioz produktuen zirkulazio askea sortu bada eta hiri horietan 952/2013 (EB) Erregelamendua aplikatu behar bada.
- g) “Nahastea”: bi substantziaz osatutako fluidoa, horietako bat gutxienez 517/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskineko zerrendan dagoen substantzia bat denean.
- h) “Kudeaketa-bulegoa”: Zerga Administrazioaren egitura organikoari buruzko arauen arabera Berotegi Efektuko Gas Fluordunen gaineko Zergaren gestioan eskumena duen organoa.
- i) “Atmosfera berotzeko potentziala” edo “ABP”: berotegi-efektuko gas fluordun batek karbono dioxidoarekin (CO₂) alderatuta duen berotze klimatikorako potentziala; berotegi-efektuko gas fluordun kilogramo 1ek CO₂ kilogramo 1ekin alderatuta ehun urtean zehar duen berotzeko potentziala kontuan hartuta kalkulatzen da, 517/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean xedatutakoaren arabera. Nahaste baten ABP lortzeko, zergaren xede diren gas fluordunetako bakoitzak pisuan duen zatia gasak berak duen ABPaz biderkatu behar da, eta ateratzen diren emaitzen baturaren batezbesteko haztatua kalkulatu.
- j) “Birziklatzea”: Berotegi Efektuko Gas Fluordunen gaineko Zergaren aplikazio-lurraldean garbiketarako oinarrizko prozedura bidez egiten den tratamendua.
- k) “Birsorkuntza”: berreskuratutako berotegi-efektuko gas fluordunen tratamendua eta hobekuntza, zergaren aplikazio-lurraldean egiten dena tratamendu fisiko-kimikoen bitartez gas fluordunaren ezaugarri teknikoari buruzko arauaren araberrako mailak berrezartzeko.
- l) “Edukitze irregularra”: zergaren xede diren gasak edukitzea, merkaturatzea, garraiatzea edo erabiltzea, baldin eta gas horiek eduki, merkaturatu, garraiatu edo erabiltzen dituenak ez badu egiaztatzen haiek fabrikatu, inportatu edo Europar Batasunaren barruan eskuratu dituela edo zerga aplikatzen den lurralde-eremuan eskuratu dituela

edo gas horiek aduana-zaintzapean daudela 952/2013 (EB) Erregelamenduaren arabera.

m) "Hirugarren lurraldea": zerga aplikatzen den lurralde-eremuan sartzen ez dena.

2. Zergaren aplikazio-lurraldea: Espainiako lurraldea.
3. Artikulu honetan agertzen diren kontzeptuei eta terminoei dagokienez, eta Foru Arau honetan hala definitzen den kasuetan salbu, berotegi-efektuko gas fluordunei dagokienez Europar Batasuneko eta Estatuko araudian xedatzen dena bete beharko da.

6. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Berotegi-efektuko gas fluordunen fabrikazioa, inportazioa, Europar Batasunaren barruko eskurapena eta edukitze irregularra daude zergapean.

Zerga-egitatea egindakotzat joko da bai gasak ontzietan badaude, bai produktuetan, ekipoetan edo aparatuetan txertatuta badaude.

2. Ez dira zergapean egongo:
 - a) Zergaren xede diren gas hauen fabrikazioa, inportazioa, Europar Batasunaren barruko eskurapena eta edukitze irregularra zergaren xede diren gasen gaineko zergaren aplikazio-lurraldean: 150eko edo hortik beherako ABP duten gasak.
 - b) Zergaren xede diren gas hauen fabrikazioa: fabrikatzaileak berak edo hirugarren batek, haren izenean edo kontura, zergaren aplikazio-lurraldea ez den beste lurralde batera zuzenean bidaltzeko diren gasak.
 - c) Gas hauen bidalketa zerga aplikatzen den lurralde-eremutik kanpo: 8. artikuluko 4. apartatuan aurreikusitako araubidea aplikatu zaien berotegi-efektuko gas fluordunak.

Aurreko b) eta c) letretan aurreikusitakoa eraginkorra izan dadin, beharrezkoa izango da zergaren xede diren gasak zergaren aplikazio-lurraldetik benetan irten direla ziurtatzea.

7. artikulua. Salbuespenak.

1. Honako hauek salbuetsita geratuko dira, hala badagokio erregelamendu bidez zehaztuko diren baldintzetan:
 - a) Zergaren xede diren gas hauen fabrikazioa, inportazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena: duten konposizioa guztiz aldatzeko transformazio kimikoko prozesuetan lehengai gisa erabiltzeko diren gasak. Gas horiek helburu horretarako erabiltzeko direla adieraziz etiketatuta egon beharko dute 517/2014 (EB) Erregelamenduaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - b) Zergaren xede diren gas hauen inportazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena: suntsitzeko merkaturatzen diren gasak. Ontziaren edukia soilik suntsitzeko dela adieraziz etiketatuta egon beharko dute 517/2014 (EB) Erregelamenduaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.
 - c) Zergaren xede diren gas hauen fabrikazioa, inportazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena: ekipo militarretan erabiltzeko diren gasak. Ontziaren edukia soilik horretarako dela adieraziz etiketatuta egon beharko dute 517/2014 (EB) Erregelamenduaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.
 - d) Zergaren xede diren gas hauen Europar Batasunaren barruko eskurapena: zerga-egitateari dagokion zergaren autolikidazioa aurkezteko epea amaitu aurretik Europar Batasunaren barruko eskuratzailerak zuzenean edo hirugarren batek — haren izenean

edo kontura— zergaren aplikazio-lurraldea ez den beste lurralde batera bidaltzeko diren gasak.

Salbuespen hau eraginkorra izan dadin, beharrezkoa izango da produktuak zergaren aplikazio-lurraldetik benetan irten direla ziurtatzea.

- e) Zergaren xede diren gas hauen inportazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena: hirugarren lurralde batetik datozen bidaiarien ekipaje pertsonalaren parte diren produktuetan dauden gasak, baldin eta bidalketa komertzial bat osatzen ez badute.

Ez dira bidaiarien ekipaje pertsonalaren partetzat hartuko ekipo edo aparatuek kargatzeko diren zergapeko gasak dituzten ontziak.

Bidaiariak eramaten dituzten produktuak ez dira igorpen komertzialtzat hartuko, noizean behin eskuratutako ondasunak badira, bidaiarien euren erabilera pertsonalerako edo familiarerako, eta haien izaera eta kantitateagatik merkataritza-jarduera baterako direla uste izaterik ez baldin badago.

- f) Zergaren xede diren gas hauen fabrikazioa, inportazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena: nazioarteko itsas edo aire-nabigazioa egiten duten itsasontzi edo aireontzietan erabiltzeko diren gasak (jolaserako nabigazio pribatua kanpo geratzen da).

Zergaren xede diren gasak eskuratzailen alde lehen aldiz entregatu edo eskura jartzen dituzten zergadunek eskuratzaileri eskatu beharko diete aurretiazko deklarazio bat, non adieraziko baitute produktu horiek zertarako diren.

Deklarazio hori, zerga honi dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 67. artikuluan aipatzen den preskripzio-epeak dirauen artean gorde beharko da.

- 2. Aurreko apartatuko a), b), c) eta f) letretan aipatzen diren salbuespenak eraginkorrak izan daitezten, gas horiek benetan zertara bideratu diren egiaztatu beharko da.

8. artikulua. Sortzapena.

- 1. Fabrikazio-kasuetan, fabrikatzaileak zergapeko gasak zergaren aplikazio-lurraldean eskuratzaileren alde lehen aldiz entregatu edo eskura jartzen dituenean sortuko da zerga, edo, hala badagokio, fabrikatzaileak berak fabrikatutako zergapeko gasak erabiltzen dituenean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, zerga-egitatea gauzatu baino lehen ordainketa aurreratuak egiten badira, benetan jaso diren zenbatekoengatik prezioa osorik edo zati batean kobratzen denean sortuko da zerga.

Kontrakoaren frogarik ezean, ulertuko da ezen fabrikatutako zergapeko gasen izakinen aldea (izakin gutxiago) azaltzeko arrazoia dela fabrikatzaileak gasak zergaren aplikazio-lurraldean erabiltzea, entregatzea edo eskura jartzea. Kasu horretan, aldeaz jabetzeko unean sortuko da zerga, kontrakoaren frogarik ezean.

- 2. Inportazio-kasuetan, aduana-legeriaren arabera inportazio-eskubideak sortzen diren unean gertatuko da zergaren sortzapena, aintzat hartu gabe inportazio horiek aipatutako inportazio-eskubideen pean dauden edo ez dauden.
- 3. Europar Batasunaren barruko eskurapenen kasuan, zergaren xede diren gasak eskuratzaileri igortzen edo garraiatzen hasi eta hurrengo hilaren 15ean sortuko da zerga, salbu eta data hori baino lehen eragiketa horiengatik faktura egiten bada; kasu horretan, zergaren sortzapena faktura jaulkitzen den egunean gertatuko da.

4. Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, zergaren xede diren gasak fabrikatu ondoren haiek gas fluordunen biltegizain bati entregatzen zaizkionean edo haren eskura jartzen direnean, edo fabrikatzaileak, inportatzaileak edo Europar Batasunaren barruko eskuratzaileak biltegizain izaera duenean, zergaren sortzapena gertatuko da azken horrek gas horiek izaera hori ez duenari entregatzen dizkion edo haren eskura jartzen dituen unean edo gasak erabiltzen direnean.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko, gas fluordunen biltegizainak izaera hori duela egiaztatu behar du zergaren xede diren gasen saltzailearen aurrean edo inportazio- aduanaren aurrean kudeaketa-bulegoaren baimenaren bidez.

Kontrakoaren frogarik ezean, ulertuko da ezen jasotako zergapeko gasen izakinen aldea (izakin gutxiago) azaltzeko arrazoia dela biltegizainak gasak zergaren aplikazio- lurraldean erabiltzea edo biltegizain izaera ez duenari entregatzea edo haren eskura jartzea. Kasu horretan, aldeaz jabetzeko unean sortuko da zerga, kontrakoaren frogarik ezean.

5. Edukitze irregularra gertatzen den kasuetan, edukitze irregular hori egiaztatzen den unean sortuko da zerga, kontrakoaren frogarik ezean.

9. artikulua. Zergadunak eta gainerako zergapekoak.

1. Zerga honen zergadunak dira, 6. artikuluko 1. apartatuan jasotako kasuetan, pertsona fisikoak, juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 34.3 artikuluan adierazitako erakundeak, baldin eta zergaren xede diren gasak fabrikatu, inportatu edo Europar Batasunaren barruan eskuratzen badituzte.

Inportatzailezat hartuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 86. artikuluan ezarritakoaren arabera izaera hori dutenak.

2. Aurrekoa gorabehera, 8. artikuluko 4. apartatuko kasuetan, gas fluordunen biltegizainak dira zergaren zergadunak.
3. Zergaren xede diren gasen edukitze irregularra gertatzen denean, gas horiek eduki, merkaturatu, garraiatu edo erabiltzen dituen izango da zergaduna.
4. Irregulartasunen bat badago erabilera dela-eta salbuespena izan duten zergapeko gasak zertarako baliatu edo erabili diren justifikatzearekin, zergadunek ordaindu beharko dute zerga, bai eta jar litezkeen zehapenak ere, harik eta zergadunek justifikatu arte produktuak jasotzeko ahalmena duen eskuratzaileak produktuak jaso dituela, 7. artikuluan aipatutako deklarazioa aurkeztuz; produktuak jasotzen direnetik aurrera, berriz, obligazioa eskuratzaileena izango da.

10. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Zergaren xede diren gasen pisuaren arabera izango da zerga-oinarria; pisu hori kilogramotan adieraziko da.
2. Aurrekoa gorabehera, zergaren eremu objektiboa osatzen duten gasak dituzten produktu, ekipo edo aparatuen kasuan, ez badago datu nahikorik zerga-oinarria zehazteko aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera, haietan dagoen gas-kopurua hau dela ulertuko da, kontrakoaren frogarik ezean:
 - a) Etxeko hozkailuak eta izozkailuak: 0,250 kilogramo kW-etan adierazitako hozte-potentziako unitate bakoitzeko.
 - b) Hozteko industria-konpartimentuak eta merkataritza-instalazioak: 1,5 kilogramo kW-etan adierazitako hozte-potentziako unitate bakoitzeko.
 - c) Izozteko industria-konpartimentuak eta merkataritza-instalazioak: 2,5 kilogramo kW-etan adierazitako hozte-potentziako unitate bakoitzeko.

- d) Aire girotuko ekipo eramangarriak: 0,250 kilogramo kW-etan adierazitako hozte-potentziako unitate bakoitzeko.
- e) Eraikinetako aire girotuko sistemetakozko hozte-ekipoak, bero-ponpak eta hezetasuna kentzeko makinak: 0,500 kilogramo kW-etan adierazitako hozte-potentziako unitate bakoitzeko.
- f) Turismoetarako aire girotua: 0,600 kilogramo ibilgailu bakoitzeko.
- g) Furgoneta, kamioi eta orga garraiatzaile-jasotzaileetarako aire girotua: kilogramo 1 ibilgailu bakoitzeko.
- h) Karabanetarako, autokarabanetarako eta ibilgailu berezietarako aire girotua: 2 kilogramo ibilgailu bakoitzeko.
- i) Autobus edo autokarretarako aire girotua: 5 kilogramo ibilgailu bakoitzeko.
- j) 250 mililitroko edo gutxiagoko edukiera osoa duten aerosolak: 0,125 kilogramo ontzi bakoitzeko.
- k) 500 mililitroko edo gutxiagoko eta 250 mililitrotik gorako edukiera osoa duten aerosolak: 0,250 kilogramo ontzi bakoitzeko.
- l) 500 mililitrotik gorako eta 1.000 mililitroko edo hortik beherako edukiera osoa duten aerosolak: 0,5 kilogramo ontzi bakoitzeko.
- m) Ate isolatuak: 0,25 kilogramo m²-ko.
- n) Apar zigilatzailea: 500 gramo produktuaren kilogramo bakoitzeko.
- ñ) Isolamendurako poliestireno estrumentua: 2,5 kilogramo m³-ko.
- o) Hotz-ganberetarako eta izozkailuetarako panelak: 6 kilogramo m³-ko.
- p) Esnea hozteko tangak, zeharkako hozte-sistema: kilogramo 1 kW-etan adierazitako hozte-potentziako unitate bakoitzeko.
- q) Esnea hozteko tangak, zuzeneko hedapen-sistema: 2 kilogramo kW-etan adierazitako hozte-potentziako unitate bakoitzeko.

11. artikulua. Zerga-tasa.

Zerga-tasa kalkulatzeko, 0,015eko koefizientea aplikatu behar zaio zergaren xede diren gasetako bakoitzak zerga-egitatea gauzatu den unean indarrean dagoen araudiaren arabera daukan atmosfera berotzeko potentzialari eta, gehienez ere, 100 euro ordainduko dira kilogramo bakoitzeko.

Zergaren xede diren gasak dituzten produktu, ekipo edo aparatuen kasuan, haien atmosfera berotzeko potentziala ezagutzen ez bada, ulertuko da, kontrakoaren frogarik ezean, aplikatu beharreko zerga-tasa kilogramoko 100 euro dela.

12. artikulua. Kuota osoa.

Zerga-oinarriari karga-tasa aplikatzearen emaitza izango da kuota osoa.

13. artikulua. Kenkariak.

1. Beherago adierazitako inguruabarrak gertatzen diren likidazio-aldi bakoitzari dagokion autolikidazioan, eta, hala badagokio, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan,

zergadunek zergaldi horretan sortutako zergaren kuotetatik murriztu ahal izango dute zergadunak edo hirugarren batek, haren izenean edo kontura, zergaren aplikazio-lurraldetik kanpo bidalitako gasak direla-eta ordaindutako zenbatekoa.

Apartatu honetan jasotako kenkaria aplikatzeko, Zerga Administrazioaren aurrean frogatu beharko da, zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabiliz, gasak zergaren aplikazio-lurraldetik kanpo bidali direla, baita zerga ordaindu dela egiaztatu ere.

2. Aurreko apartatuaren arabera aplikatu behar diren kenkarien zenbatekoa likidazio-aldi batean sortutako kuoten zenbatekoa baino handiagoa denean, gaindikina hurrengo autolikidazioetan konpentsatu ahal izango da, baldin eta gaindikin horren sorrerako likidazio-aldia amaitzen denetik lau urte igaro ez badira.

14. artikulua. Itzulketak.

1. Honako hauek eskubidea izango dute ordaindutako zergaren zenbatekoa itzul dakiela eskatzeko, hala badagokio erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan:
 - a) Zergaren xede diren gasen inportatzaileek, baldin eta gasok eurek edo hirugarren batek, haien izenean edo kontura, zergaren aplikazio-lurraldetik kanpo bidali badituzte.
 - b) Zergaren xede diren gasen eskuratzaileek, baldin eta zergadun izan ez arren egiaztatzen badute gas horiek zergaren aplikazio-lurraldetik kanpo bidali dituztela.
 - c) Zergaren xede diren gasen eskuratzaileek, baldin eta zergadun izan ez arren egiaztatzen badute gas horiek bideratu direla 7. artikuluko 1. apartatuaren f) letran jasotako salbuespena aplikatzea ekarriko luketen helburuetara.
2. Aurreko apartatuan jasotako kenkaria aplikatzeko, Zerga Administrazioaren aurrean frogatu beharko da, zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabiliz, apartatu horretako letretan zerrendatutako egitateak gertatu direla, baita zerga ordaindu dela egiaztatu ere.
3. Hala badagokio erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan, zergadunen kenkarien zenbatekoek urte naturaleko azken likidazio-aldian sortutako kuoten zenbatekoa gainditzen dutenean, haiek eskubidea izango dute beren aldeko saldoa itzul dakiela eskatzeko likidazio-aldi horri dagokion autolikidazioan.

15. artikulua. Gestio-arau orokorrak.

1. Zergadunek zergaren autolikidazioa egin beharko dute, eta zerga ordaindu. Likidazio-aldia hiruhileko naturala izango da.

Hala ere, inportazioen kasuan, aduana-zorrerako ezarritako moduan likidatuko da zerga, aduana-araudian xedatutakoaren arabera.

2. Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru-aginduaren bidez, aurreko apartatuan aipatutako autolikidazioak aurkezteko ereduak, betekizunak eta baldintzak ezarriko dira, eta, hala badagokio, zergaren itzulketak eskatzekoak ere bai.
3. Erregelamendu bidez ezarritako moduan, zergaren xede diren gasak fabrikatu, inportatu edo Europar Batasunaren barruan eskuratzen dituztenak eta gas horien bilteginak behartuta egongo dira Berotegi Eftektuko Gas Fluordunen gaineko Zergaren lurralde-erregistroan inskribatzera. Erregelamendu bidez ezarriko dira erregistro horren edukia eta inskribatzeko, baja emateko eta errebokatzeko prozedurak.

Apartatu honetan aipatzen den inskripzioa jarduera hasi aurretik egin beharko da.

4. Merkataritzako arauak eta beste arau fiskal batzuek ezarritako kontabilitate-betebeharrak gorabehera, zergaren xede diren gasak fabrikatzen dituzten zergadunek, bilteginak, eta, hala badagokio, gas horien inportatzaile edo Europar Batasunaren barruko eskuratzaile

jakin batzuek gas horien kontabilitatea egin beharko dute bitarteko elektronikoen bidez, eta, hala badagokio, gasok lortzeko beharrezkoak diren lehengaiena ere bai.

Erregelamendu bidez ezarriko da zer kasutan ez den beharrezkoa betebeharrak hori betetzea, eta zer baldintzatan egin behar den aipatutako kontabilitatea.

5. Espainiako lurraldean ezarrita ez dauden zergadunek pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute Zerga Administrazioaren aurrean haien ordezkari jardun dezan zerga hau dela-eta dituzten betebeharrak dagokienez, eta izendapen hori, behar bezala egiaztatua, zerga honen zerga-egitatea den lehen eragiketa egin aurretik jakinarazi beharko dute.

Zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez dauden zergadunak ordezkatzeko dituzten pertsona fisiko edo juridikoen, erregelamendu bidez ezarriko diren salbuespenekin, Berotegi Eftektuko Gas Fluordunen gaineko Zergaren erregistroan inskribatu beharko dute.

16. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.

1. Apartatu honetan ezarritako xedapen bereziak gorabehera, zerga honekin lotutako tributuarloko arau-haustek kalifikatzeko eta zehapenak ezartzeko, 2/2005 Foru Araua aplikatuko da (martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergei buruzkoa).
2. Tributuen arloko arau-haustek izango dira:
 - a) Ez betetzea Berotegi Eftektuko Gas Fluordunen gaineko Zergaren lurralde-erregistroan inskribatzeko betebeharrak, 15. artikuluko 3. eta 5. apartatuetan aurreikusitakoa.
 - b) Ez betetzea zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez dauden zergadunek ordezkari bat izendatzeko duten betebeharrak, 15. artikuluko 5. apartatuan aurreikusitakoa.
 - c) Zortzigarren artikuluko 4. apartatuan aurreikusitakoa ezarri zaien gas fluordunen fabrikatzaileek edo biltegizainek aldeak izatea zergaren xede diren gasetan (gas gutxiago).
 - d) Zergaren xede diren gasen eskuratzailak 7. artikuluan jasotako salbuespenen okerreko onuradun izatea, gas horiek benetan zertara bideratu diren justifikatzen ez denean, dagokion salbuespena aplikatzeko hala egin behar den kasuetan.
3. Aurreko zenbakian jasotako arau-haustek arau hauen arabera zehatuko dira:
 - a) Aurreko apartatuaren a) eta b) letretan jasotakoei diruzko isun finko bat ezarriko zaie, 1.500 eurokoa.
 - b) Aurreko apartatuaren c) letretan jasotakoari diruzko isun proportzional bat ezarriko zaio, gas horiei legokiekkeen kuotaren ehuneko 100ekoa.
 - c) Aurreko apartatuaren d) letretan jasotakoari diruzko isun proportzional bat ezarriko zaio, profitatutako okerreko onura fiskalaren ehuneko 150ekoa, gutxienez 1.000 euroko zenbatekoa izango dena.
4. Artikulu honetan aurreikusitako isunei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 192. eta 193. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaie.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra. Izakinen saldoa jakinaraztea, dagokion autolikidazioa aurkeztea eta betebeharroriek ez betetzearen ondoriozko zehapen-araubidea.

Gas fluordunen fabrikatzaileek eta foru-arau honen 5. artikuluko 8. apartatuaren arabera — aurreko idazketan— birsaltzaile izaera dutenek, Zerga Administrazioari jakinarazi beharko diote, 2022ko irailean zehar, gas fluordunen zer kantitate zegoen beren instalazioetan 2022ko irailaren 1ean.

Aurreko paragrafoan ezarritako baldintzetan, jakinarazpen hori egin beharko dute berotegi-efektuko gas fluordunak lehen aldiz ekipo edo aparatu berrietan txertatzeko erabiltzen dituzten enpresariak ere, zeinak foru-arau honen 7. artikuluko 1. apartatuaren d) letran —aurreko idazketan— aurreikusitako salbuespenaren onuradun diren.

Tributu-arloko arau-haustetzat jotzen da aipatutako jakinarazpena epe barruan ez aurkeztea, bai eta jakinarazpen hori osatu gabe, okerreko datuekin edo datu faltsuekin aurkeztea ere. Ezarriko den isuna diruzko isun finko bat izango da, 500 eurokoa, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 192. eta 193. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaio.

Erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan, biltegizain izaera ez duten birsaltzaileek, 2022ko irailaren 1etik azaroaren 30era arteko epearen barruan, beren instalazioetan 2022ko irailaren 1ean egondako gas fluordunen izakinei dagozkien kuotak jasotzen dituen autolikidazioa egin beharko dute, eta aldi berean, haren ondoriozko zerga-zorra ordaindu.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Sistema elektrikoaren fabrikazioan erabiltzen den sufre hexafluorurorako araubide berezia.

Sistema elektrikoaren fabrikazioan erabiltzen den sufre hexafluorurorako araubide berezia. 2023ko abenduaren 31ra arte salbuetsita egongo dira, erregelamendu bidez zehaztuko diren baldintzetan, sistema elektrikoaren fabrikaziorako sufre hexafluoruroaren fabrikazioa, inportazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena. Ontziaren edukia soilik horretarako dela adieraziz etiketatuta egon beharko du 517/2014 (EB) Erregelamenduaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena. Farmazia-osagaien hornidurarako inhalagailu dosifikatzaileetan erabiltzekoak diren zergapeko gasetarako araubide berezia.

2026ko abenduaren 31ra arte salbuetsita egongo dira, erregelamendu bidez zehaztuko diren baldintzetan, farmazia-osagaien hornidurarako inhalagailu dosifikatzaileetan erabiltzekoak diren zergapeko gasen fabrikazioa, inportazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena. Gas horiek helburu horretarako erabiltzeko direla adieraziz etiketatuta egon beharko dute 517/2014 (EB) Erregelamenduaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea eta ondorioak sortzea.

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Arauak emateko ahalmena.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emango dituzte.

Bilbon, 2014ko ekainaren 11n.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,

JON ANDONI ATUTXA SAINZ.

Batzar Nagusietako Lehendakariak,

ANA MADARIAGA UGARTE.